



**"AÑ.13.1 BELARTZA ALTO" SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA
(Añorga) DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

(Haslerako onarpena)
2021eko Iraila

AURKIBIDE OROKORRA

"AÑ.13.1 BELARTZA ALTO" SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA

- A. MEMORIA
- B. PLANOAK
- C. HIRIGINTZA-ARAUAK
- D. EXEKUZIOA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK
- E. BIDERAGARRITASUNAREN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERLANA

INGURUMEN AZTERLAN ESTRATEGIKOA ("AÑ.13.1 Belartza Alto" sektorearen Plan partziala) (Ekolur, Ingeniería Ambiental S.L. 2021/08)

ERANSKINAK

"Belartza Alto Jarduera Parkeko trafiko-inpaktuaren azterketa" (eranskina barne) (Leber, Planificación e Ingeniería S.L. 2021/06)

Genero-eraginari buruzko txostena. ("AÑ.13.1 Belartza Alto" sektorearen plan partziala) (Saibigain XXI, S.L. 2021/07)

Donostiako Noiz Bait baserriaren inguruko Irubide erreken eta Añorga erreka-buruaren azterketa hidrologikoa eta hidraulikoa (Salaberria Ingeniería 2021/09)

"AÑ.14 Belartza 2" sektorearen hirigintza-hitzarmena (2002/11/25)

SUSTATZAILEA:

Saibigain XXI, SL

ERREDAKZIOA:

Francisco de León, Arquitectura y Urbanismo, SL

LANKIDETZAK:

Ingeniaritza zibila:

IRMO, Ingeniaritza Zibila SLP

Ingurumen-ingeniarietza:

EKOLUR, ASESORÍA AMBIENTAL S.L.L.

Trafikoaren azterketa:

LEBER, Planificación e Ingeniería S.L.

Azterketa Hidrologikoa eta Hidraulikoa:

Salaberria Ingeniería

"GI-11" errepideko loturaren aurretiko azterketa

SESTRA, Ingeniería y Arquitectura S.L.

"AÑ.13.1 BELARTZA ALTO" SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA (Añorga) DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**(Hasierako onarpena)
2021eko Iraila**

A. MEMORIA

AURKIBIDEA:

Orr.:

1. SARRERA. AURREKARIAK. PROIEKTUA FORMULATZEKO AUKERA ETA INTERES PUBLIKOA (7/2015 LHBren TB 4. art.).....	1
2. PLAN PARTZIALA EGITEKO ARAU-ERREFERENTZIAK	2
3. "AÑ.13.1 BELARTZA ALTO AZPI-EREMUAREN EGUNGO EGOERAREN DESKRIPZIOA	10
4. ANTOLAMENDUAREN DESKRIPZIOA	14
4.1. EZARPENA LURREAN	14
4.2. ZONIFIKAZIOA ERABILERA-PROGRAMAK.....	15
4.3. AZPI-PARTZELAZIOA ETA ERAIKUNTZAK.....	17
4.4. ERAIKI GABEKO ESPAZIOAREN ANTOLAMENDUA. PAISAIA-INTEGRAZIOA	23
4.5. BIDE-SAREA.....	24
4.6. APARKALEKUA.....	28
5. URBANIZAZIOA	30
5.1. LUR-MUGIMENDUA	30
5.2. HORMAK, EGITURAK ETA FABRIKA-LANAK.....	31
5.3. BIDE SAREA, OINEZKOEN SAREA, APARKALEKUA ETA ZOLAKETA.....	32
5.4. DRAINATZE SISTEMA OROKORRA.....	32
5.5. SEKTOREAREN BARNE ZERBITZU SAREAK.....	34
6. HAPO-RA ETA EZARGARRI DEN LURRALDE- ZEIN SEKTORE-ARAUDIRA EGOKITZEA.....	36
7. TOKIKO ZUZKIDUREN ETA GUTXIENEN OKUPAZIOAREN LEGE AGINDUAK BETETZEA (2/2006 LHEL / 123/2012 HED).....	46
8. PLAN PARTZIALEAN SARTZEA HURA GARATZEN DUEN DOKUMENTU HONETAKO "IRISMEN- TXOSTENEAN" ETA "INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAN" EZARRITAKO IRIZPIDEAK ETA NEURRIAK	47
9. PROIEKTUAREN EDUKI MATERIALA.....	50
10. IZAPIDETZEA.....	51

I. Eranskina. Antolamenduaren ezaugarrien koadroak

II. Eranskina. "Irigarritasuna sustatzeko" indarrean dagoen araudia betetzearen justifikazioa

III. Eranskina. CTE DB-SI "Sute kasuan segurtasuna" betetzearen justifikazioa

IV. Eranskina. "AÑ.13.2 Cantera" sektorearen indusketatik eratorritako lurren isurketari buruzko
txostena (TOPISA. 2017/07/20)

A. MEMORIA

1. SARRERA. AURREKARIAK. PROIEKTUA FORMULATZEKO AUKERA ETA INTERES PUBLIKOA (7/2015 LHBren TB 4. art.)

"13.1 Belartza Alto " sektorearen Plan Partzial hau – Donostiako HAPOko "13.1 Belartza Alto" azpi-eremu urbanistikoa – Sektoreko lurzoruen titularra eta sektoreko jabetza-kuota nagusi baten ordezkaria den "SAIBIGAIN XXI" enpresaren ekimenez formulatu da.

Plan partziala izapidetzeko eskaeraren helburu nagusia da "AÑ.14 Belartza 2 jarduera ekonomikoaren sektore berriaren Plan Partzialak" eragindako lurzoruetarako ezarritako antolamendu xehatua indargabetzea eta ordezkatzeta. Plan hori 2009/02/27an onartu zen behin betiko, eta indarrean dagoen Donostiako Plan Orokorrak -2010/06/25eko behin betiko onespena- baliokidetu egin zuen -printzipioz -, eragindako eremuaren izena aldatuz.

Baliozkotze hori, ordea, ez da eraginkorra. Hurrengo atalean argudiatzen den bezala, nahiz eta HAPOk bere arau-testuan berariaz proposatzen zuen – "AÑ.13 Belartza (II) Eremuko Hirigintza Arau Berezia" – Plan Orokorraren behin betiko onarpenean sartutako Ingurumen Iraunkortasuneko Txostenak, berez, "AÑ.13.1" azpi-eremuaren antolamendua berrikustea eskatzen du.

Gainera, erakunde sustatzaileak proposatzen du sektorean garatu beharreko jarduera ekonomikoko erabileren programa berriz aztertzea, plan partzial baliokidetuaren aurreikuspena aldatuta. Plan horrek – Hirugarren sektoreko erabileretara bideratutako "F" eta "G" partzelak izan ezik, horietan Belartza Erdikoa baserria garrantzi gutxiko aprobetxamenduarekin finkatzen baitu – industria-erabilerako partzelen multzo bereizi gabea definitzen du, eta horiei Plan Orokorrak "b.10" kalifikaziorako ezarritako beste jarduera-erabilera batzuen ezarpen-tolerantzia generikoa esleitzen zaie, partzela desberdinei esleitutako erabilerak nahiko zehatz identifikatzen ditu erabilera dibertsifikatuko programa baten bidez, eta, neurri batean, exekuzio-prozesuan irekitako definizio-aukera hori baztertzen du.

Horrela, bada, -Plan Orokorrak berak eta Merkataritza Establezimendu Handien 10/2019 Legeak horri buruz ezartzen dituzten esparruaren barruan-, Donostialdeko edukiera handiko (A-8 eta G1-11) errepide-sarera berehalako sarbidea duten Belartza Alto bezalako kokapenetako jarduera ekonomikoko lurzoru-merkatuaren egungo baldintzetara hobeto egokitu nahi da, hauetan tamaina ertaineko merkataritza-guneen edo logistika-jarduera berrietarako zentroen lehentasunezko eskaera identifikatzen delarik.

Hori gorabehera, Plan Partzialaren formulazioak erantzun zuzena eta espezifikoa ematen dio Plan Orokorraren aginduari - "AÑ.13" eremuko arau berezia, "II. Proiektuaren formulazioaren egokitasuna eta interes publikoa"-, besteak beste, honako helburu hau lehenetsiz Eremua garatzeko:

- ...
- Eremua antolatzeke helburu orokorra jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriko gune berri bat sortzea da, Belartzan dagoenaren luzapenean (I).
- ...

Egoera ekonomiko globalean, enpresa berriak ezartzea premia larria da, eta Plan Orokorrak eta Donostialdeko LPPk bere egin dute, "Belartza Alto" programaren garapena indarrean dagoen esku hartzeko programan sartuz. Egoera horretan, guztiz justifikatzen dira proiektua egiteko aukera eta interes publikoa.

Era berean, Plan Orokorraren IJTren aginduak berariaz "gomendatzen" du onartutako plan partzialaren zonakatzea aldatzea, ingurumen-intereseko zuhaizti-eremuak eraikuntzatik libratuz, eta "zuzkidura-espazio libre" gisa kalifikatzeak erabakigarritasunez justifikatzen du hautatutako plangintzaren figura eta haren izapidetzea.

Bestalde, sektorearen garapenean kontuan hartu beharreko aurrekarien artean, Eremuaren jabetzaren eta Donostiako Udalaren artean sinatutako "hirigintza-hitzarmena" aipatu behar da. Hitzarmen hori 2002/11/25ean onartu zen eta "A.I.U. AÑ. Belartza 2" Hirigintza Jarduketarako Eremuari dagokion Plan Orokorraren aldaketaren oinarri izan zen -2007/10/16ko behin betiko onarpena-; eta berau, era berean, "AÑ.14. Belartza 2 Jarduera Ekonomikoko Sektore berriaren Plan Partziala" izapidetzeko eta onartzeko oinarri izan zen. "Hitzarmen" honek, funtsean, zenbait baldintza berezi eta espezifiko ezartzen zituen – baita ezarpen fisikoari dagokionez ere – Udalari sektorearen garapenean aprobetxamenduak legez lagatzeko.

Printzipioz, ulertu behar da hitzarmenak indarrean jarraitu zuela 2010eko HAPO onartu ondoren, eta, beraz, haren ordezkari hitzarmen bat egin beharko dela, antolamendu berrira egokitua, alderdi sinatzaileen eskubide-baldintza antzekoak erreproduzitzeko dituen.

Ekimen honen aurrekari gisa, adierazi behar da SAIBIGAIN XXI enpresak Udalari aurkeztu zizkiola, 2017an eta 2018an, "AÑ. 13. Belartza (II) HÉri dagokion Plan Orokorra aldatzeko" proiektuari dagozkion hainbat dokumentu, hasierako onarpena lortu ez zuena, baina hasi zuen ingurumen arloko izapidetzea – *prozeduraren "hasiera" 2017/09/25ean eta "irismen-txostena" 2017/01/11n* - eta udal teknikariek hainbat izapidetze eta txosten burutu zituzten, erreferentzia zuzena izan direnak proiektu hau egiteko.

Honek, aipatutako proiekturako proposatutako antolamenduaren irtenbide orokorra jasotzen du, lursailen ezartzekoa, eta, elementu publikoak bere osotasunean – *bideak, zuzkidura-espazio libreak eta beste herri-espazio publiko batzuk* -. Azken bertsio horretan, irisgarritasunean, bideetan eta zerbitzu-azpiegituretan egindako hobekuntzak jasotzen dira, eremu barrukoak zein kanpokoak, Udal Ingeniaritza Zerbitzuaren txostenetan (*2018/06/21 eta aurrekoak*) eskatzen direnak.

Espedientea 2020/07 egunean hasi zen izapidetzen, Udalari "Ingurumen-ebaluazio estrategikoa" hasteko eskaera aurkeztu zitzaionean – *proiektatutako antolamenduaren "Ebaluazioaren hasiera" eta "Zirriborroa" izeneko nahitaezko dokumentuak erantsi ziren* -, 20/12/10ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak dagokion "Irismen-dokumentua" egin du.

Haren eskakizunak "Ekolur, Estudios Ambientales S.L." enpresak idatzitako "Plan Partzial" honetan eta "Ingurumen Azterlan Estrategikoan" sartu dira. Plan horretan, halaber, "Inpaktu akustikoaren azterlana" eta "Jasangarritasun energetikoaren azterlana" sartzen dira, indarrean dagoen legeria sektorialak eskatzen dituenak.

Plan Partzialari honako dokumentu hauek ere erantsi zaizkio:

- * "Belartza Alton Parke Industrial edo Mistoaren trafiko-inpaktuari buruzko azterketa" (*Leber, Planificación e Ingeniería SL. 07/2020; Eranskina 06/2021*), bideetara sartzeko proposamenen justifikazio-erreferentzia gisa, eta, zehazki, "GI-11" errepiderako sarbide berriarena eta "Iru Bide" biribilguneak proposatutako gaitasun-hobekuntzena.
- * Generoaren arabera eraginari buruzko txostena (Saibigain XXI, S.L. 07/2021), *indarrean dagoen legediak eskatzen duena betez*.
- * "13.1 Belartza Alto" sektorearen garapenak lrubide eta Añorga erreka N-634 errepidearen azpitik igarotzeko ahalmen hidraulikoan dituen eragin azterketa hidrologiko-hidraulikoa". (*Salaberria Ingenieritza 09/2021*) Pasabide hori hobetzeko egin beharreko esku-hartzearen dimentsionamendua eta ezaugarriak justifikatzen ditu, bai eta "Belartza Alto" sektorearen garapenaren ondoriozko ur-jariatzeen gehikuntzak ez direla oso esanguratsuak ere – *horretarako, iragazgaiztea murrizten duten SUDS sistemak gehitzen zaizkio urbanizazioari* -; hauek, deskribatutako obra gauzatu ondoren, drainatze-sistemak onartzeko modukoak dira.
- * Belartza 2 AÑ.14 Sektorearen Hirigintza Hitzarmena (*2002/11/25*)

Testu honek udal zerbitzuetako hainbat teknikariek egindako txostenetan eskatutako zuzenketak jasotzen ditu, proiektua sustatu duen enpresak 2021/08/02an hasierako onarpena eskatzeko aurkeztutako testuari dagozkionak.

2. PLAN PARTZIALA EGITEKO ARAU-ERREFERENTZIAK

2.1. DONOSTIAKO HAPO

"13.1 Belartza Alto" Hirigintza Azpi-eremuko Plan Orokorren arau-aurreikuspenak dagokion "arau partikularrean" jasotzen da – *"2.2 Hirigintza Eremuetako Hirigintza Arau Bereziak (HE) eta Natur Eremuak (NE)" dokumentuko "Hirugarren Liburua Añorga (AÑ)"-ko "AÑ.13 Belartza (II) (Añorga)" Hirigintza Eremuaren Arau Partikularra*-, dokumentu honen "I. Eranskin" gisa eranstean direnak. Laburbilduz, honako hauek dira:

- * Antolamendurako irizpide orokorrak:
 - ° Azpi-eremurako proposatutako antolamendu-helburu orokorra jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarriaren gune berri bat sortzea da, Belartza (I)-en zegoena luzatuz. Gune horretan sartu behar zen, halaber, "AÑ.13.2 Cantera" azpi-eremua, haren mugakidea, eta jada garatuta dagoena.

- Plan Orokorrak sendotu egiten ditu, funtsean, "AÑ 14. Belartza II Jarduera ekonomikoko sektore berria garatzeko Donostiako Plan Orokorren aldaketa" izenekoak azpi-eremurako ezarritako antolamendua – *egiturazkoa eta xehatua* – eta dagokion Plan Partziala – *2009/02/27ko behin betiko onarpena* –.
- "AÑ.09 Belartza (I)" hirigintza-eremu mugakidean ibilgailuentzako sarbidea biribilgune berri baten bidez ebaztea proposatzen da, bide-sistema orokorra oztopatu gabe.
- Plataforma eraikigarri berriak konfiguratzeko beharrezkoak diren lur-mugimenduen lur-erazketak eta lubetak orekatzeko helburua adierazten da, baita ingurumen tratamendurako, paisaia-integratzaileko eta ingurune fisikoaren gaineko inpaktuen zuzenketarako beharrezko neurriak hartzekoa ere.
- * Honako hauek dira "13.1" sektoreari aplikatu beharreko "egiturazko" zehaztapenak, plangintza baliozkotuak eta "B.10" eremuei aplikatu beharreko HAPOnen araudi orokorrak - *Arau Orokorren "15" eta "37" art.-* batera definituak –:
 - Mugaketa:Definizio grafikoa arau partikularri erantsitako planoetan.
 - Azalera: 207.606 m²
 - Kalifikazio globala: "B.10 Industria" (207.606 m²)
 - Hirigintza-eraikigarritasuna (sg) 0,40 m²(t)/m² (83.042 m²(t))
 - Gehieneko okupazioa (sg) %30,0 (61.282 m²)
 - Erabilera nagusia:Industria
 - Bateragarriak diren beste erabilera batzuen ezarpenak mugatzea: . eraikigarritasunaren %40
 - "Merkataritza-erabilerak" baimentzea: . 1., 2., 3. eta 4. kategoriak (gehienez 4.000 m²(t)). (Partzeletan 4. kategoriako 4.000 m² (t) arteko "merkataritza-erabileren" ezarpenak berariaz jaso behar dira plangintza xehatuan)
 - "Belartza Erdikoa" baserriari dagozkion finkak hirugarren sektoreko erabilerako "b.20" lurzatitzat kalifikatuko dira, lehendik dagoen etxebizitza-erabilerarekin bateragarria izango da, eta gaur egungo eraikuntza-okupazioaren ezaugarriak eta hari atxikitako espazio pribatuak "nabarmen" mantenduko dira.
 - Eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak
 - "Sestra gaian":
 - Oro har, baliozkotutako plan partzialak ezarritakoari lotzen zaizkio. Honek ezartzen du:
 - "b.10" industria-erabilerako partzelak:
 - Industria-nabeak: BS+1
 - Bulegoak eta eraikin adierazgarriak: BS+2
 - Altuera ez da oro har arautzen, eta antolamendu xehatuari lotzen zaio.

Ikuspegi juridiko-urbanistiko batetik baliozkotutako plan partzialaren eraikuntza-forma arautzeko zehaztapen xehatuak egiturazko zehaztapenaren kategorizazio hori osatugabea izateaz gain, ez denez oso sendoa – "6/2006" Hirigintza eta Lurzoru Legearen 53. eta 56. artikulak –, arrazoizkoa dirudi Plan Orokorren araudi orokorra aukerako erreferentziatzat hartzea – *Arau Orokorren 37.2 art.-*, "b.10" partzeletarako eraikuntza-mota modu generikoan definitzen baitu – *xehatu gabe* –, honako hau ezarritik:

"Plan Orokor honetako Arau Partikularretan edo hura garatzeko sustatutako plangintza xehatuan modu justifikatuan eta gorantz nahiz beherantz ezar daitezkeen zehaztapen espezifikoak alde batera utzi gabe, lehentasunez erabilera industriala duten partzeletan, oro har, baimendutako gehieneko eraikuntza-altuera 12,00 m-koa da. Altuera hori 16,00 m-ra igo ahal izango da, oro har, kota bereizietan kokatutako askotariko bideetatik iristen diren solairuak dituzten industria-eraikinen edo -eraikuntzen kasuan."


 - Hirugarren sektoreko erabilerako "b.20" partzelak:
 - Eraikuntzaren formaren erregulazioak, baliozkotutako plan partzialean, HAPOn araudi orokorra aipatzen du – "b.20" kalifikazio-tipologia –, zeinak, aldi berean, plangintza xehatura bideratzen baitu haren definizio zehatza.
 - Sestrapean:
 - Plan Orokorren arau orokorrera jotzen du, eta honek sestra azpian gehienez lau (4) solairu eraikitzeko baimena ematen du.
 - Lurzoruaren sailkapena:..... Sektorizatutako lurzoru urbanizagarria.

MAPA "4. eranskina"(IUT HAPO Donostia /San Sebastián, Biodibertsitateari buruzko eranskina.
2009/10/15)



- * Bestalde, Plan Orokorrenen IJT, "1. Biodibertsitateari buruzko eranskinean" gomendatzen du -6. orr.-:
- "...Belartza II:*
Azpi-eremu honetan aurreikusitako jarduketek eragina izan dezakete bertoko zuhaitz landareren 60.000 m²tan (ikusita erantsitako 4. zenb. mapan). Zuzendaritza honek basotxo hauek espazio libreria bideratzea gomendatzen du, hauengan edonolako eragina izatea saihestuz.
Neurri hau Hirigintza-arauetan txertatu beharko da, eremua garatzeko baldintza gisa..."

- * **Donostialdea-Bidasoa behea Lurralde-Plan Partziala (2017/07/27)**



ÁMBITO DE LAS ACCEPCIONES URBANAS DEFINIDAS EN EL PTP



ÁMBITO DE LAS ÁREAS DE CARÁCTER ESTRATÉGICO DEFINIDAS EN EL PTP

Las propuestas de ordenación en las áreas de carácter estratégico y las consiguientes alternativas y propuestas de localización de nuevos suelos residenciales y para actividades económicas se definen en los epígrafes 7.2 a 7.7 y en los planes complementarios 5.1 a 5.3

NUOVOS DESARROLLOS RESIDENCIALES Y DE SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS PREVISTOS EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE O EN LOS PROYECTOS DE REVISIÓN DEL MISMO

PARQUE RESIDENCIAL

OPERACIONES DE INCREMENTO DEL PARQUE RESIDENCIAL CONTINGENTES EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE O EN REVISIÓN Y CONCEPTUADAS EN EL PTP COMO PRIORITARIAS.

RELEVANTES OPERACIONES DE INCREMENTO DEL PARQUE RESIDENCIAL CONTINGENTES EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE O EN REVISIÓN.

1000

Nº DE NUEVAS VIVIENDAS PREVISTAS.

SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS

ÁREAS DE SUPLENIMIENTO DE NUEVO SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS CONTINGENTES EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE O EN REVISIÓN Y CONCEPTUADAS EN EL PTP COMO PRIORITARIAS.

RELEVANTES ÁREAS DE SUPLENIMIENTO DE NUEVO SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS CONTINGENTES EN EL PLANEAMIENTO MUNICIPAL VIGENTE O EN REVISIÓN.

500

SUPERFICIE SUELO LIBRE EN HECTÁREAS.

OTROS PRODUCTOS Y/O PROYECTOS DEL PTP

PROYECTOS DEL PTP DE DESARROLLO DE NUEVO PLANTUARIO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS DE CARÁCTER ESTRATÉGICO Y LOCALIZADO EN EL CONJUNTO URBANO SUPLENIDOR.

DELINTEO MARITIMO-TERRESTRE

LÍNEA DE DELINEO DEL DOMINIO PÚBLICO MARITIMO-TERRESTRE.

LÍNEA DE DESARROLLO DE PROTECCIÓN.

BAJO ORIA

PARQUE RESIDENCIAL

- AJUSTE DEL CRECIMIENTO DEL PARQUE RESIDENCIAL PLANIFICADO ENTRE LASARTE-ORIA, USURBIL Y DONOSTIA-SS (ZUBIETA Y REKALDE) EN EL HORIZONTE MEDIO DEL PLAN (2016-2023) SEGÚN LAS DOT ES DE 1.246/1.686 NUEVAS VIVIENDAS.
- SE DEFINEN EN EL PTP UNA SERIE DE ACTUACIONES CONSIDERADAS PRIORITARIAS, CON LA FINALIDAD DE FACILITAR LA SELECCIÓN DE LAS ACTUACIONES A ACOMETER PREFERENTEMENTE ENTRE EL TOTAL DE LAS 4.370 NUEVAS VIVIENDAS PROGRAMADAS EN EL SUMATORIO DE LOS PLANEAMIENTOS MUNICIPALES.
- SE PROPONE PRIORIZAR LAS OPERACIONES COCHERAS Y OKENDO, EN LASARTE, Y LAS ENCLAVADAS EN EL NÚCLEO URBANO CENTRAL DE USURBIL. SE RECOMIENDA, COMPLEMENTARIAMENTE, LA RECONSIDERACIÓN DEL DESARROLLO DE ÁLDATXETA PROGRAMADO EN ZUBIETA.

SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS

- PROPUESTA DE UN DIMENSIONAMIENTO GLOBAL DE 250/260 Ha PARA EL TOTAL DEL SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS PLANIFICADO EN EL HORIZONTE DEL PLAN ENTRE USURBIL, LASARTE-ORIA Y DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (ZUBIETA Y REKALDE), CIFRAS QUE AUNQUE COINCIDEN SENSIBLEMENTE CON EL SUMATORIO DE LAS PREVISIONES DE LOS RESPECTIVOS PLANEAMIENTOS MUNICIPALES REBASAN LAS NECESIDADES ENÓGENAS DE LA SUBCOMARCA.
- CONSIDERACIÓN DE LA OPERACIÓN DE ESKUZAITZETA COMO UNA INTERVENCIÓN PÚBLICA DE CARÁCTER ESTRATÉGICO Y SUPRAMUNICIPAL, PARA EL QUE SE PROPONE UNA GESTIÓN DE ESCALA GENERAL DE PROMOCIÓN Y DESARROLLO DE NUEVO SUELO PARA ACTIVIDADES ECONÓMICAS PARA CUBRIR LAS NECESIDADES DEL CONSUMO DEL ÁREA FUNCIONAL.
- CONSIDERACIÓN COMO ACTUACIÓN PÚBLICA PRIORITARIA LA RECONVERSIÓN EN INDUSTRIALDEA DE UNA PARTE DE LA PLANTA DE MICHELÍN.

FDLEON **arg+urb**

"AÑ.13.1 Belartza Alto" eremuak baldintza hauek betetzen ditu, baita petrolio gaien hornidura instalazioen balizko ezarpenerako baldintza ere.

* "Merkataritza Establezimendu Handien 10/2019 Legea"

Legeak, gaur egun, "Merkataritza-gune handiak" ezartzeko baldintza gehienak arautzen ditu.

Legeak, izaera "berezia" duten "merkataritza-gune handiak" -*tamaina handiko salgaien eta noizbehinkako erosketako merkataritza*- eta gainerakoak -*ez-berezia*- dutenak bereizten ditu, "merkataritza-gune handi" *ez-berezien* lehentasunezko ezarpena agintzen du - *"hirigintza-plangintzaren egiturazko antolamenduak mugatutako bizitegitarako hiri-bilbean"*, eta, salbuespen gisa soilik, periferian kokatutako jarduera ekonomikoko poligonoetan ezartzea onartzen du, honako muga hauekin:

- ° Ez gairatzea eremuko hirigintza-erakigarritasunaren % 30 -*edo 30.000 m2 (t)*-.
° Ez handitu behar izatea lehendik dauden mugikortasun-azpiegituren oinarriko sarearen zerbitzu-ahalmena.

"Izaera bereziko merkataritza-gune handien" kasuan, nahiz eta, -*itxuraz kontraesankorrak diren definizioekin*-, "*nagusiki jarduera ekonomikoetarako erabiltzen den hiri-lurzorua*ren eremuetan" lehentasunez ezartzea agintzen duen -*"6.5" art.*-, horiek ezartzeko "*komunikazio-korapiloetan dauden eta balio logistiko handia duten aukera estrategikoko lurzorua*" gordetzea, eta "*azalera-premia handiagoak dituztenez eta eragindako mugikortasun txikiagoa dutenez*" "*biztanle guneen kanpoko kokapenari*"... lehentasuna ematea proposatzen du -*"5.1" art.*-. Hauek ezartzeko ezartzen den erregulazio zehatz bakarra da ez gairatzea ezartzea gomendatzen den hiri-lurzoruko eremuen erakigarritasunaren % 30eko muga -*"6.5" art.*-.
Jarraian, deskribatutako muga funtsezko alderdiak konfiguratzeko dituen Legearen artikulua aipatzen dira:

"...

2. artikulua.- *Aplikazio-eremua.*

1.- *Lege honen eraginpean egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako establezimendu komertzial handi guztiak.*

2.- *Lege honen xedapen gehigarri bakarrean xedatutakoaren ondorioetarako, establezimendu komertzial handiaren parekotzat hartuko da hiriko bizitegi-saretik kanpo kokatutako antolamendu-esparru bereberrean izaera ez-bereziko establezimendu komertzial bat baino gehiago egotea eta establezimendu komertzial horiek guztiek, elkarrekin, neurri horiek gairatzea, banan-banan gairatzen ote dituzten alde batera utzita.*

"3." artikuluan ondorengoa zehazten du:

"...

2.- *Saltegi berezia: handizkakoa izan gabe, merkataritza-banaketa honako jarduera hauetako batera bereziki bideratzen duen saltegia:*

a) *Altzarien, etxetresna elektrikoaren eta gailu elektronikoaren erakusketak eta salmenta.*

b) *Itsasontzien eta bestelako automobilgintza-ibilgailuen erakusketak eta salmenta.*

c) *Erregai-salmenta.*

d) *Eraikuntza-gaien -hala nola eraikuntzarako edo saneamendurako makineriaren eta materialen edota brikolaje- eta burdindegia-elementuen- erakusketak eta salmenta.*

e) *Lorezaintza-zentroak eta hazitegiak.*

3.- *Establezimendu komertzial handiak: izaera finko eta iraunkorreko eraikin edo instalazioak eta horien bulegoak, jarduera komertzialak erregulartasunez gauzatzen dituztenak eta, gutxienez, honako baldintza hauek bete behar dituztenak:*

a) *Hein handiagoan edo txikiagoan (esklusiboki, lehentasunez, partzialki, etengabe, aldi behin edo noizbehinkari) erabilera komertzial hauetarako (modalitate bakarrekoak edo gehiagokoak) baliatzea, hala badagokio, beste erabilera batzuen osagarri gisa ere bai: ostatu-zerbitzuak (hotelak, ostatuak, turismo-ostatuak, kanpinak, etab.); ostalaritza (jate txikiak, tabernak, etab.); kirol, kultura eta aisialdiak jarduerak eta instalazioak (zinema-aretoak, golf-zelaiak, etab.); eta bestelako erabilera osagarriak.*

b) *Arestian aipaturiko erabilerekin bideratutako honako hirigintza-erakigarritasun hau izatea, sestra gainean eta azpian:*

- *A kategoriako udalerriak (zentralitate handieneko udalerriak), zuzenbidezko biztanleria 30.000 biztanlelik gorakoa dela: 2.500 m2ko salmenta-azalera eta 3.500 m2ko sabai eraikigarria.*

"..."

"..."

5. artikulua.- *Legearen helburuak.*

Establezimendu komertzial handiak antolatze eta ezartzeko printzipio orokorrak honako helburu hauek lortzera bideratuta daude:

1.- Lurzoruaren okupazio jasangarria gauzatzea eta okupazio jasangarriaren balioak gordetzea, baita inguruneak eta ingurumena hirikoa, landakoa eta naturala babestea, betiere lurraldean establezimendu komertzial handiak ezartzeak izan dezakeen inpaktua minimizatuta, aukera estrategikoa eta balio logistiko handia duten eta komunikazio-lotuneetan kokatuta dauden lurzoruak interes orokorreko arrazoiak direla-eta babestuta, eta izaera singularreko merkataritza-jarduerak biztanle guneetatik kanpo ezartzeari lehentasuna emanez, hori guztia azalerarekin eta segurtasunarekin loturik dituzten premia handiei eta sortzen duten mugikortasun txikiagoari erreparatuta.

...

"6." artikuluan, "5." atalean, honako hau ezartzen du:

...

5.- Izaera singularreko establezimendu komertzial handiak lehentasunez ezarriko dira jarduera ekonomikoetako erabilera nagusia duten hiri-lurzoruko esparruetan, betiere hirigintza-erakigarritasunaren % 30 ez badute gainditzen. ..."

Azkenik, "6." artikuluan, "5." atalean, honako hau ezartzen du:

XEDAPEN GEHIGARRIA. Biztanle guneen kanpoaldean dauden jarduera ekonomikoko industrialdeetan beste establezimendu komertzial batzuk ezartzea.

Txikizkako establezimendu komertzialak establezimendu komertzial berezietz bestelakoak izaera tertziario edo industrialeko jarduera ekonomikoko industrialdeetan biztanle guneetatik kanpo edo biztanle guneen kanpoaldean daudenetan eta, nolana ere, hiriko bizitegi-saretik kanpo kokatuak, ezarri ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira betiere dagokien antolamendu-esparruan gainditu egiten dituztenean dimentsionamendu-atalaseak, jada existitzen diren ezarpenekin batera:

1.- Industrialdearen erabilerak izaera osagarria eduki behar du, eta ezingo du gainditu guztizko hirigintza-erakigarritasunaren % 30.

2.- Ez dute eragingo jada existitzen diren mugikortasun-azpiegituren oinarritzko sarearen zerbitzu-gaitasuna handitzeko beharra.

* EAEko Ibai eta erreka ertzak antolatzeko LAP (2013/11/19)

LAPk ez du berariaz identifikatzen Belartza Alto eremua zeharkatzen duen Errekaxulo erreka. Hori horrela, -"00" mailakotzat sailkatzen da: barne isuri arroa 1 km²-a; beraz, hirigintza-jarduketak ibilgu publikoaren mugaketa-lerrotik aldendu beharreko gutxienekoa Uren Legean ezarritakoa izango da.

* Ingurumen legeri orokorra

Plan Orokorraren IJTN adierazitako baldintzak ezartzeaz gain, LEA "21/2013"k eta DEAPP "211/2013"k xedatutakoari jarraiki, "AÑ.13.1" azpi-eremuaren antolamenduak "ingurumen ebaluazio estrategikoaren" izapidea jarraitu behar du, eta honek ezarriko dituen neurri zuzentzaileak txertatu behar dira.

Halaber, ingurumen-azterketa estrategikoak justifikatu beharko du bete egiten direla "klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko 7/2021" Legean jasotako aurreikuspenak. Lege honetan zabaldu egiten dira aurreko legerian alderdi horietan ezarritako eskakizunak.

* Errepideen Foru Araua

Eremuaren antolamenduak, "G-11" foru-errepidearen Irubideko lotuneari eragiten diona, Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren txostenean jasotakoa jarraituko du.

* Donostiako Aireportuaren bide-zor aeronautikoak

"AÑ.13.1 Belartza Alto" Eremua "Donostiako aireportuaren bide-zor aeronautiko"en "IAC1" eta "IAC2" "huts egindako gerturatze azalaren eraginean geratzen da, bere osotasunean. Hauek eraikinen eta beste elementu batzuen altuera mugak ezartzen dituzten arren, bertan dauden lur malden ondorioz -tarte handiarekin aipatutako azalera arautzaileen kotetara iritsi arte- ez du ematen proiektatutako garapen berrian eraginik izango duenik.

Edonola ere, espediente honek, eta zehazki, "13.1 Belartza Alto" Eremuaren antolamendu xehatuak, Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko du hasierako onarpena jaso aurretik.

* Paisaia babesteko legeria

Kontuan hartzekoa da 90/2014 Dekretua, paisaia babestekoa, eta 154/2020 Dekretua, paisaiaren zehaztapenei buruzko Don/BB eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren aldaketa onartzen duena; azken honek, lehenengoa garatzen du Eremu Funtzionaleko lurralderako.

Bi dekretuetako bakar batek ere ez du ezartzen "13.1 Belartza Alto" eremuari zuzenean aplikatzeko arau-zehaztapen espezifikorik.

Lurralde Plan Partzialaren aldaketan, "PR1 Oria eta Urumea arteko hiri-inguruko espazioetako" "paisaia-unitatean" kokatzen da, bere lurralderako ez da zehazten "paisaia-kalitateko helburu" espezifikorik, eta, bere eremuan edo ingurunean, ez da identifikatzen "paisaia-interes bereziko" eremu edo elementurik.

Lurralde Plan Partzialaren aldaketak "paisaia-kalitateko helburuak" aipatzen ditu bere ingurune hurbilean, eta "Belartza I" sektorearen eta Irubide eta Aingeru Zaindariaren muinoaren arteko "GI-11" tartearan, eta, N-634 errepidearekiko lotunearen "paisaia-hobekuntza" proposatzen du - zehaztapen zehatzik gabe-.

Proiektatutako garapenari dagokionez, ulertu behar da soilik Lurralde Plan Partzialaren aldaketaren "5.1.f" artikuluan jasotako agindua aplikatu behar dela, "paisaia-integrazio azterlan" bat egiteari dagokionez:

"...
f) Hiri-jarduketa berrietarako Paisaiaren Integrazio Azterlanak txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 Dekretuan aurreikusitako tresna gisa. Gomendatzen da infografiak eta simulazio fidelak sartzeari azken soluzioarekin, bai eta beharrezko ikus-analisiak ere, paisaia-katalogoaren emaitzaren ondorioekin ebaluatu eta alderatu ahal izateko: balioak, enklabe eta elementuengan eragina, ikusizko irisgarritasuna. ..."

"Azterlana" IAEn txertatu beharko da - "90/2014" Dekretuaren "7.3" artikulua - eta, gutxienez, honako eduki hauek jasoko ditu: - "90/2014" Dekretuaren "7.2" art.-:

"...
a) Paisaiaren egoeraren deskribapena: osagai nagusiak, paisaia-balioak, paisaiaren zaurgarritasuna eta agerikotasuna.

b) Proiektuaren ezaugarriak: kokapena eta txertatzea, proiektua definitzen duten agiriak, esaterako, altxaerak, sekzioak, oinplanoak, bolumetria, koloreak, materialak eta beste alderdi esanguratsu batzuk.

c) Integrazio paisajistikorako neurriak eta irizpideak: eragin potentzialak, alternatiben azterketa, hartutako irtenbidearen justifikazioa, eraginak prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko hartutako neurrien deskribapena.

3. "AÑ.13.1 BELARTZA ALTO AZPI-EREMUAREN EGUNGO EGOERAREN DESKRIPZIOA

* **Kokapena eta mugaketa**

209.735 m²-ko azalera duen "AÑ.13.1 Belartza Alto" sektorea Donostiako HM muturrean kokatzen da, Usurbileko eta Lasarte / Oriako udalerrak mugakide dituela, Añorga / Errekalde auzoan Aingeru Zaindariaren gailurreraren hegoaldean mendi magal erdian kokatua.

Plan Orokorrak dagoeneko finkatuta dagoen Belartza (I) jarduera ekonomikoko eremuaren hedatze gune gisa proposatzen du haren hirigintza-garapena, sarbideetako bat eremu honetatik duelarik.

Ondorengoak dira eremuaren mugak: mendebaldetik GI-11 autobidea, Iparraldetik Aingeru Zaintzailearen gailurreraren goiko aldea, eta hegoaldeko zein ekialdeko Belartza "I" jarduera eremua.

Forma nabarmenki trapezoidala du, bere aldeek 500 metroko batezbesteko dimentsioa izanik.

* **Topografia**

Sektoreak bi muino eta bi ibar sakon ditu, iparralde / hegoalde norabidean daudenak.

Topografia malkartsua duen lurraldea da, malda handiko magalekin, "Belartza (I)"ekin muga egiten duen punturik baxuenean +68,0 metroko kota eta Belartza Goikoa muinaren iparraldeko muturrean +139,0 metroko kota dauzka.

"Irubide" izena duen eta mendebaldean kokatzen den ibarra Belartza (I) sektorean egindako indusketetatik ekarritako lurrekin bete zuten. Betelaren goiko lur-berdinketa plataforma +110,0 metroko -hego muturrean- eta +115,0 metroko -ipar muturrean- koten artean kokatzen da.

"AÑ.13.2 Harrobia" eremuaren indusketatik ekarritako materialak isuri dira oraintsu hauen gainean -betelanerako kalitate geotekniko egokia dutenak-, guztira 67.674 m³-ko bolumenarekin.

* **Landaredia eta erabilerak**

(Dok. 1. "AÑ.14 Belartza 2" jarduera ekonomikoko sektore berriaren Plan partzialaren Memoria. IKAUR 12/2008. Transkripzioa):

"...Sektorearen gainerakoa eraldatu gabe dago eta basotxo batzuei eta zelaiez betetako landa paisaia bati dagokio, nekazaritzako eta abeltzantzako jarduera maila baxuarekin.

Sektorearen HE muturrean dagoen tontorrean kokatzen da eremuan dagoen eraikin bakarra, Belartza Erdikoa baserri bikoitza.

Ekos enpresa adituak egindako txosten diagnostikoan islatzen dira guneak dituen natura ezaugarriak landareriari eta hidrologiari dagokionez, honako hauek hain zuzen ere:

"Irubideko eta Errekatxuloko ibarrak iparralde / hegoalde orientazioa dute. Estai muinotarrean kokatzen dira, 150 metroko gehieneko altuera kotarekin eta 75 metroko gutxieneko kotarekin. Bertako landareria potentziala baso harizti misto atlantiarra da. Area oso antropizatua da; arearen beheko aldean Belartza "I" industrialdea kokatzen da, eta goiko aldean banandutako etxebizitzak eta nekazaritzako eta abeltzantzako ustiategi batzuk daude.

Horregatik guztiagatik, nahiko narriatuta dago landareria, oraindik gradu ertaineko kontserbazioa duten harizti unadak egon arren.

*Irubideko ibarra. Belartza "I" industrialdearen mendebaldean kokatutako ibarra da. Ibarraren goiko aldean bate-lanak egin dituzte industrialdean egindako lanen soberakinekin, eta beraz, egun ez dauka landareri. Beheko aldean, industrialderako sarbidearen eta N-634 errepidearen artean, baso misto unada bat mantentzen da; bertan, haritz pendukulatua (*Quercus robur*), haritz amerikarra (*Quercus rubra*) eta Monterreyko pinu ale isolaturen bat (*Pinus radiata*) aurkituko ditugu; Irubide baserriaren parean tamaina handiko haltz batzuk daude (*Alnus glutinosa*) eta platano handiren bat. Zuhaitzen estaldura ertaina-baxua da, dauden aleak garapen erdikoak dira eta hauetako askok huntza eta mihurak dituzte.*

*Zuhaixka-estratua, batez ere, ereinotzak (*Laurus nobilis*) eta sasiek (*Rubus sp*) osatzen dute, estaldura eskasarekin. Poligonorako sarbidearen eta bete-lanen arteko ibarreko basotxo oso narriatuta dago, estaldura eskasa dauka, haritz pendukulatuaren portzentaia oso baxua da eta haritz amerikarra, haltz batzuk, platanoak eta Monterreyko pinuak ditu lagun. Zona honetan zein urei beherantz jarraituz, haritz*

amerikarraren birsorkuntza nabarmena antzeman daiteke, taldeak osatzen dituzten 2 metroko altuerako nahikotxo ale daudelarik. Substratua oso aldatuta dago bide azpian hondakinak direla eta, belar estaldura birsortzen ari den arren.

Hegoaldeko orientazioa duen espaloian muinean dauden etxebizitzetaraino iristen den pinu landaketa bat dago; Monterreyko pinuaren (Pinus radiata) landaketak dira, oihanpe eskasarekin eta dagoeneko garatuta dauden aleekin. Belartzako poligonoa Aingeruaren bidearekin lotzen duen bidearen ekialdean, gutxi gorabehera bete-lanaren parean, tamaina ona duen pago landaketa txiki bat dago (Fagus sylvatica), oihanperik ez duena.

Ibarraren goiko aldean barreiatutako etxebizitzak daude. Batez ere zelaiak dauden arren, baita ere antzeman daiteke otadi, txilardi / irasail bat.

GI-11 errepideak zeharkatutako ibarra. Mendebaldeko orientazioa duen magalak zelai handi bat du goiko aldean, eta Monterreyko pinu landaketa bat eta harizti nahasketa bat (Quercus robur) beheko aldean. Haritzak tamaina ertain-handia dute, eta azpimarragarria da ez dagoela oihanperik. Haritz amerikarren bat eta beste espezie exotiko batzuk ere badaude haritz pendukulatuekin batera.

Errekatxuloko ibarra. Ibar honek zuhaitz estaldura dauka ekialdeko orientazioa duen magalean, eta zelaiak eta fruta-arbolak dira nagusi mendebaldeko orientazioa duen magalean, honetan daudelarik lurrietaenea eta Matxintxu baserriak; azken honen iparraldean garapen ertaineko harizti unada txiki bat dago, estaldura eskasa duena eta oihanpe gabea. Baso misto bat dago ekialdeko orientazioa duen magalean, eta Monterreyko pinu lursail txiki bat eta espezie honen ale barreiatuak daude honen barruan. Baso mistoak haltzen bat ere badu ubidearen ondoan; ibarraren goiko aldean, Bidarte baserriaren parean, sahatsak (Salix atrocinerea) eta haltzak nagusitzen zaizkie haritzei.

Hidrogeologia. Aztertutako lurraldea, ikuspuntu hidrogeologiko batetik, kalteberatasun baxukotzat edo oso baxukotzat jo daiteke. ez du inolako loturarik akuiferoekin eta ez da, Unanue Zahar barrunbearekin, aldameneko lurretan dagoen lurpeko akuiferoak isurtzen duen arroaren parte. Materialak Goi Kretazeoko kostaldeko Flyscharenak dira, eta ez dauzkate honelako baliabideak barne hartzeko gaitasunik. Noizean behin, eraginen bat jasan dezake inguruko baserriren batek bilketari dagokionez berau azpi-azaleko motakoa izanez gero, baina ematen du hau dela inguruak ekoiz dezakeen gehiena ura izateari dagokionez.

* **Ezaugarri geologiko-geoteknikoak**

Aurreikusitako plataforma eratzeo beharrezkoak diren lur-mugimenduek etorkizuneko poligonoa garatzeko duten garrantzia ikusita -585.000 m3 inguruko indusketa eta betelanak-, lan zehatz bat egin da lur-azpiko ezaugarriak ezagutzeko asmoz.

Horretarako Azterketa Geologiko-Geoteknikoa egin du Geologia y Geotecnia Larrea, S.L. aholkularitza enpresa adituak, 16 lagin eta 2 zundaketarekin.

Azterketa Geologiko-Geoteknikoan jasotzen denez, lurraldea batez ere hareak-antzeko kareharrien eta Goiko Kretazeoari dagokion azaleratutako materialak dituzten flysch ehunduradun tuparrien alternantziez osatuta dago. Kolubialen gune puntual batzuk ere antzematen dira, eta baita ere Irubideko ibarraren erdiko tartean dagoen lurren betelan handi bat.

Bertako buztina erresistentzia txikiko zoru bigunei dagokio, arroka material erdi-gogorrari, indusiezina, meteorizaziogarria eta betelanak orokorrean erdidentsoak diren zoru heterogeneoei.

Ez da antzematen intereseko ur punturik, isurketenak eta errekastoenak izan ezik. Azterketatik proiektatutako operazioaren bideragarritasuna ondorioztatzen da, bai indusketetarako planteatutako ezponden dimentsionamenduagatik -1H-1V inklinazioarekin dimentsionatuta- bai betelan guneei esleitutako konfigurazioagatik -hauetan 2H-1V malda aurreikusi da-.

Azterketa Geologiko-Geoteknikoaren ondorioetan azpimarratzen denez, ez da aurreikusten indusketa zailtasun nabarmenik, eta onar daiteke -hartu beharreko zuhurtziazko neurriak eta hezetasun mailaren kontrolari dagokion neurriak hartuta eta betelanen material desberdinen geruzengatik txandakatze arduratsua eginez-, indusketa eta betelan bolumenen artean ia erabateko oreka lortuz gauzatu ahal izango da operazioa, kanpotik ekarpen esanguratsurik egin gabe eta kanpora soberakin esanguratsurik atera gabe.

Azterketan adierazten da, baita ere, urbanizazioa amaitu ostean lur naturaleko guneek azaleko zimenduak jartzeko baldintza egokiak izango dituztela; aldiz, betelanen kasuetan azterketa zehatzak egin beharko direla. ..."

* **Eraginpeko sarbideak eta zerbitzuak**

"... Egun, Belartza 1 poligonotik abiatuta Belartza Erdikoaren ondoan dagoen muino txikira arte igotzen den oraintsu eraikitako pista batetik sartzen dira ibilgailuak ingurura. Puntu honetan antzinako auzobidea berrartzen da, Aingeru Zaindariaren gallurreriatik doan errepideraino igotzen dena.

Ibilbidearen bigarren tarte hau bide funtzionaltasun oso mugatua duen pista bati dagokio.

Sektoreko lurraldeak landa fisionomia mantentzen du bere osotasunean, eta ez dago ibilgailuak ibiltzeko egokia den beste pistarik.

Honako ezaugarri hauek dituzte sektorean dauden bi ur emariek:

- ° *Irubide ibarreko erreka, sektorean zehar Iparralde Hegoalde norabidean 500 metroko luzera duena, 370 metroko lehenengo tarte baten lurren betelan batekin estalita dago. Sektorearen Hegoaldeko muturrean, erreka, orotara 0,15 Km²-ko azalera duen arro bat drainatzen du. Honek, Belartza "1"erako sarbidearen azpian dagoen Ø 1.200-eko hodi baten bidez ateratzen du ura.*

Sektorearen erdigunean dagoen ibarraren hondoa, bere egunean "Belartza 1" poligonoa eraikitzean sortutako indusketen soberakinekin egindako betelanak okupatzen du. Betelanak, urak batzeko bi areka perimetral eta harri-lubeta aurrealde bat ditu betelanaren ezpondaren oinarrian.

Lur-berdinketa +110-+115 koten artean garatzen da, eta 32.000 m² inguruko plataforma horizontaleko azalera bat dauka. Aurreko lubetaren isuriarekin eta sarbideari dagokion indusketarekin, morfologikoki aldatutako gunea 46.000 m² ingurukoa da.

Betelanaren barruan 420 metroko luzera duen drainatze-hodi bat jarri zen, ubidearen ibilgua jarraituz.

Horren gainean, aurreko urteetan, "AÑ.13.2 Cantera" azpisektoreko lurren mugimendutik eratorritako materialak – 63.673.79 m³, TOPISA enpresaren neurketaren arabera (memoria honen "IV" eranskina) – isuri ziren – ez zen ez zabaldu ez trinkotu –. Isurketa ez dago jasota udal-kartografian.



Ingurumen- eta ekonomia-iraunkortasuneko irizpide argi bati erantzuten dion horrek, erreferentziako bi azpi-eremuak hartzen dituen "AÑ.13 Belartza II. H. Eren Arau Partikularren II. Antolamendu-irizpide eta -helburu orokorrak" atalean jasotako AÑ.13 Belartza II" sektorean lurak orekatzeko aginduari erantzuten dio, eta, kareharrizko materialekin egin da, kalitate egokikoak, zabaldegi gisa erabiltzeko – erantsitako argazkian ikus daitekeen bezala –.

- ° *Errekaxuloko erreka, sektorean zehar Iparraldea Hegoaldea norabidean 350 metroko luzera duena, egoera naturalean aurkitzen da. Bere puntu baxuenean orotara 0,12 Km²ko arroa drainatzen du, eta Belartza "1" poligonoaren Ekialdeko muga perimetralean dagoen hormigoizko areka batekin lotzen da. Urak behera jarraituz estalitako tarte bat dauka Oassa enpresak duen industria-instalazioaren eta N-1 errepidearen azpian, Añorga ubidearekin bat egin aurretik.*

Sektoreak ez du ia-ia zerbitzu azpiegiturarik. Honako hauek dira dauden elementu bakarrik:

- ° *30 kv-ko aireko linea elektrikoa, sektorea HE alderditik zeharkatzen duena. Linea honek bi aire-desbideratze ditu, bata Amasoraineko transformadorera eta bestea Asfaltos de Campezo antzinako harrobira. Egun, linea hau, zerbitzuz kanpo dago.*
- ° *Ur, telefono eta argindar zerbitzuen eroanbideak Belartza Erdikoa baserrira.*

*** Lurzoruaren jabegoaren egitura**

Guztira 209.735,387 m²ko azalera duen Eremuan 13 finka identifikatzen dira, guztiak jabego pribatua dutenak.

Aurretik adierazi den bezala, Belartza Erdikoa da egun dagoen eraikuntza bakarra, hego-ekialdeko ertzean kokatzen dena, Errekaxulo eta Irubideko ibarrak bereizten dituen muinaren muturrean. Bertan bi etxebizitza daude, guztira eraikitako 330 m²(t)ko azalerarekin, eta, erabilera osagarrientzako 241 m²(t)-rekin -*ibilgailuak gordetzeko, biltegia eta beste batzuk*-.



Belartza Erdikoa baserria

Egungo partzela-datuen, eraikinen eta erabileren koadroa

FINAK				EGUNGO ERABILERAK		
Finka zenb.	Jabea	Azalera		Etxebizitza		Bltegia/ Trastelekua
		m ²	Guztira %:	Kop.	m ² (t)	m ² (t)
1	Amasorain Gestión Urbanística S.L.	76.782,51	36,61%			
2	Landu Promozioak S.L.	3.287,26	1,57%			
3	Belartza Garaia C.B.	74.561,91	35,55%			
4	Eduardo Jiménez y otros	9.716,40	4,63%			
5	Ramon Isasa	8.641,27	4,12%			
6	Jose Isasa	4.899,57	2,34%			
7	Ramon Isasa	4.559,85	2,17%	2	330	241
8	Belartza Garaia C.B.	1.837,69	0,88%			
9	Hermanos Altuna Izaguirre	19.207,83	9,16%			
10	SAIBIGAIN XXI	1.160,20	0,55%			
11	SAIBIGAIN XXI	1.982,12	0,95%			
12	SAIBIGAIN XXI	1.232,00	0,59%			
13	Bernabé Uruzola	1.866,77	0,89%			
Guztira		209.735,38	100,00%	2	330	241

4. ANTOLAMENDUAREN DESKIPZIOA

4.1. EZARPENA LURREAN

"Belartza Garaia" sektorearen jarduera ekonomikorako espazioaren garapena oso baldintzatuta dago muino altu batean, malda nabarmenarekin, eta aldameneko lurzoruetatik ia 20 metro gorago baitago. Horien bitartez, kontaktua gertatzen da hiriaren gainerakoarekin, eta, horietatik, hiritik zein hirirako sarbidea konpontzen da.

Era berean, erabakigarria da eremuko lurzoruen zati esanguratsu bat, eta, zehazki, Errekatzuloko ibarbidea, zuhaitz-espazio gisa babestearen helburua; izan ere, horrek nabarmen murrizten du lurrak berriro orekatzeko eskuragarri dagoen azalera, eta eraikuntza-plataformen eta sarbide-sistemaren konfigurazioa.

Lurren oreka lortzeko – *Plan Orokorren aginduari jarraiki, duela gutxi isuritako "AÑ.13.2. Cantera" azpi-eremuaren indusketako materialen soberakinak barne hartzen ditu: 67.673,79 m³*- plataforma mailakatuen sistema bat proposatzen da, nahiko horizontalak eta ekialderantz/mendebalderantz orientatuak, gutxi gorabeherako 110,50 m, +119,75 m, eta +119,00 m. kotetara -*eraikinen euste-sestrak*-.

Berau Irubide ubidean egindako betegarriaren gainean bermatzen da, -*erdiko ibarbidea, haren azpian lurpetik doana*-, eta saihestu egiten ditu alboetako ibarbideetan eragina izatea – *Irubide mendebaldean eta Errekatzulo ekialdean* – Eta, ahal den neurrian, haiek definitzen dituzten hegala.

